



TOPONIMIA BATZORDEA

**2015-2016 Jarduketa-planaren barruan egindako
lanak
(2017ko datuak ere sartu dira)**

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 18a



EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko Webgune martxan jarria

EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko Webgune martxan jarria.

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako datu-basean eta EAEko izendegi Geografikoan jasotzen diren toponimoak kontsultatzeko web-bilatzailea euskadi.eus webgunean jarria.

Deskribapena: EAEko Izendegian eta HPSren datu-basean dagoen informazioari buruz mota desberdinetako kontsultak egiteko balioko duen web-bilatzailea amaitzen ari da HPS. Webgune kontsulten emaitzak mapa batean erakutsiko ditu eta mapatik nabigatzeko aukera eskainiko du. Halaber, etorkizunean toponimoen ahoskera jasotzen duten soinu-fitxategiak txertatzeko eta erreproduzitzeko prestatuta utziko da sistema.

Proposamena: EAEko toponimiako datu-basea eta EAEko Izendegi Geografikoa kontsultatzeko web-bilatzailea amaitzen denean, euskadi.eus webgunean jarria eta horri zabalkundea ematea.

Data: 2013ko abendurako amaituta egotea espero dugu.

Egileak: HPS

Balantzea: Enpresa esleipendunekin (UTEa baitzen) arazoak izan ziren eta, ondorioz, lanak atzeratu egin ziren. Aplikazioa amaitutzat eman zuen baina, funtzionalitate guztiak probatzen hasitakoan, hainbat akats aurkitu ziren aplikazioan. Akatsak zuzentzen eta proba gehiago egiten ari dira jendaurrean jartzeko moduan egon dadin. 2018an martxan jarri ahal izatea aurreikusten da.



EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa zuzendu eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa amaitzea

EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa zuzendu eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa amaitzea eta abian jartzea

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko toponimia biltzeko egindako lanen ondorioz sortutako datu-basea elikatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko egiten ari den aplikazio informatikoa amaitzea. Aplikazioaren bidez, datu-basean egiten diren eguneraketak modu automatikoan egingo dira Izendegi Geografikoan ere.

Deskribapena: Toponimiako datu-basean jasota dagoen informazioa eguneratuta eduki behar da, herritarrek zein erakundeek dituzten beharrei erantzuteko momentuan eraginkorra eta erabilgarria izatea nahi badugu. Eguneratzea egiteko ardurua Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak du, eta horretarako hainbat iturri desberdin erabiltzen ditu: aldizkari ofizialak, Euskaltzaindiarekiko lankidetzak, beste administrazio batzuekiko lankidetzak, argitalpenak, mapa toponimikoak, ahozko galdeketak, etab. Hori dela eta, 2011n toponimiako datu-basearen eta EAEko Izendegi Geografikoaren mantentze-lanak egiteko aplikazio informatiko bat garatzeko kontratua egin zen.

Proposamena: EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa amaitzea, lehenbailehen abian jartzeko. Horrela, toponimia erabiltzen duten eragile desberdinetatik jasotako informazioa kudeatu ahal izango da eta herritarrei informazio eguneratua eman ahal izango zaie.

Oharra: Arazo batzuk direla medio, lana ezin izan da aurreikusitako epeetan gauzatu. Une honetan lanok amaitzeko proposamen desberdinak egin ditu enpresak, eta HPSko teknikariek in egokiena definitzen ari dira.

Data: 2013ko abendurako amaituta egotea espero dugu.

Egileak: HPS

Balantzea: ikus aurreko fitxan esandakoa.



EAEko Izendegi Geografikoaren izendegi zerbitzua sortzea

EAEko Izendegi Geografikoaren izendegi zerbitzua sortzea.

Helburua: EAEko izendegi Geografikoan jasotzen diren toponimoak eta horien kokapena zehazten duen kartografia erabiltzaileen esku jartzeko, EAEko Izendegi Geografikoa Eusko Jaurlaritzako GIS korporatiboan txertatu zen. Orain, izendegi zerbitzua sortzea da helburua. Horretarako baliabide teknologiko egokiak behar dira.

Deskribapena: EAEko Izendegi Geografikoa amaitu ondoren, ezinbestekoa da bertan dagoen informazioari zabalkundea ematea Interneten bidez. Horrela, toponimia erabiltzaileek eta, orokorrean, herritar guztiek aukera izango dute EAEko toponimia egokia zein den jakiteko. Zerbitzu hori emateko, Izendegia Eusko Jaurlaritzako GIS korporatiboan txertatu zen, GeoEuskadin, hain zuzen. Orain izendegi zerbitzua ezarri behar da, hau da, "...sarearen bidez ematen den zerbitzua, hain zuzen, fenomeno baten edo gehiagoren identifikatzaileak emanda (testu-kateak), fenomeno horien deskribapen geometrikoa bueltan bidaltzen duen zerbitzua ...". izendegi zerbitzuak EAEko Izendegi Geografikoaren datu-baseko edukiak "Modelo de Nomenclátor de España" dokumentuan zehaztutakoarekin bat etorritik argitaratuko ditu, hau da, estandarrak erabiliz.

Proposamena: Izendegi zerbitzua sortzeko beharrezkoak diren baliabide teknologikoak bultzatzea Eusko Jaurlaritzan, EAEko Izendegi Geografikoan jasotzen den informazioa modu errazean, osatuan eta erakargarrian erabiltzaileen eskura jartzeko.

Oharra: Une honetan ezinezkoa da zerbitzua ematea baliabiderik ez dagoelako.

Data: Ahalik eta lasterren.

Egileak: HPS, Lurralde Antolamendua, EJIE.

Balantzea: legealdi berria hastean, berraztertu egin da gaia eta bertan behera uztea erabaki da. Hemen proposatzen zen zerbitzua EAEko toponimiako Izendegi Geografikoa kontsultatzeko interneteko aplikazioaren bitartez eskainiko du HPSk.



EAEko toponimiari buruzko dekretua egitea

EAEko toponimiaren inguruko hainbat gai arautzeko dekretua egitea

Helburua: Euskararen legeak toponimiaren arloan irekita utzi zuen bidea garatzea, mapetan, testuetan, erregistroetan eta gainerako erabilera ofizialetan forma berbera erabil dadin.

Deskribapena: Biztanleguneen eta udalerrien izenak ofizialtzeko jarraibideak aspalditik ezarrita dauden arren, gaur-gaurkoz arazoak daude EAEko gainerako toponimoak erabiltzeko momentuan, eta askotan zehaztasun falta ikusten da. Hala, toponimo bera bi edo hiru idazkera desberdinekin aurki dezakegu. Hori saihesteko, ezinbestekoa da toponimiaren inguruko zenbait gai arautuko dituen Dekretu bat egitea, udalekin eta foru aldundiekin lankidetzan.

Proposamena: EAEko toponimiaren inguruko gaiak arautzeko Dekretua lantzea. Horretarako, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko teknikariek, lege-aholkularitzarekin batera, gaia aztertu eta proposamena landuko dute. Ondoren, Toponimia Batzordeari aurkeztuko zaie batzordekideek iritzia eman dezaten. Egoki ikusten bada, lan-talde bat eratuko da erakunde desberdinetako ordezkariekin.

Data: 2013ko abendua.

Egileak: HPS

Balantzea: Saio bat egin zen eta dekretugaia Toponimia Batzordean aurkeztu zen. Batzordekide batzuek egindako oharren ondorioz ez zuen aurrera egin. Toponimiaren inguruko gaiak arautzeko beharrak, ordea, hor jarraitzen zuen. 2016an Eusko Legebiltzarrak udal legea onartu zuen: 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Lege honen 7. artikuluan jasotzen da udalerriei dagokiela beren lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea. Horrek nabarmen aldatuko du toponimia-lanaren prozedura eta, horregatik, egitasmo hau bertan behera utzi da.

Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea

Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea.

Helburua: EAEko biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin izan du eta egiten du lan hori.

Deskribapena: Euskararen Legean toponimoak ofizialtzeko finkatutako irizpidearen arabera, izen ofiziala aldatzeko premia ikusten den kasuetan, udalerrien eta biztanleguneen izen ofizialak zuzentzeko edo EAEko hizkuntza ofiziala bietara egokitzeko, azken urteotan egindako lanarekin jarraitu behar da. HPSren aldetik, izen ofiziala aldatu nahi duten toki-entitateei espedientearen izapideak burutzeko laguntza eskaintzen zaie.

Bestalde, aldatutako izenei buruzko informazioa zabaltzen eta jakinarazten segitu behar da herri administrazioei izen ofizialen gaineko informazio eguneratua izan nahi dutela adierazi duten bestelako erakunde, enpresa edota pertsoneri. Azkenik, toponimia ofizialaren erabilera okerra dela-eta jasotzen diren kexa eta oharrak bideratzen jarraituko dugu.

Proposamena: Lan hau egiteko zailtasunak daudenean, erakundeen aldetik erantzunik jasotzen ez delako, Toponimia Batzordeko kideren baten laguntza beharrezkoa izan liteke egoera desblokeatzen saiatzeko.

Data: Etengabe

Egileak: HPS, aldundiak eta udalak

Balantzea: 34 biztanle guneren eta bi udalerriren izen ofizialak aldatu ziren 2013-16 epealdian. 2017an, berriz, Arabako lau biztanle guneren izenak aldatzeko espedienteak burutu dira eta udalerrri batena izapidetzen jardun du udal batek.

Aldatu diren izen ofizial guztien zabalkundea egin da.



izen ofizialen
aldaketak 2013-17.dc

Horrezaz gainera, 2013-16 jarduketa-planean aurreikusi ez bazen ere, 2017an argitalpen berezia egiteko aukera izan da. Azken hiru hamarkadetan auzitan izan den izen bati buruzko ikerketan lanaren laburpena ("Toloño mendilerroa") argitaratu da Euskaltzaindiarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean.



EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko, erakunde desberdinekin lankidetzan aritzea

EAEko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko, aldundiekin, Euskaltzaindiarekin eta udalekin lankidetzan aritzea.

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) duen EAEko toponimiako datu-basea eguneratuta mantentzeko, erabili behar diren bideak erakundeekin adostea.

Deskribapena: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko toponimia jasotzeko lanak amaitutzat eman ditu. Gaur egun esan daiteke EAEko datu-basea osatuta eta bateratuta dagoela egiturari dagokionez. Dena den, edukiari dagokionez oraindik zer hobetu badago: batetik, biztanleguneen ofizializazio-lana oraindik ez da amaitu, eta bestetik, asko dira euren eremuan toponimia-lanak egiten ari diren udalerrriak. Horrek esan nahi du etengabe datu berriak sortzen ari direla, eta datu horiek HPSren datu-basera ekartzea komeni dela. Horretarako ezinbestekoa izango da Euskaltzaindiarekin, Aldundiekin, udalekin eta gainerako eragileekin lankidetzan aritzea.

Proposamena: Erakunde eta eragile guztiekin lankidetzan aritzeko eta informazioa trukatzeko bidea zehaztu beharko da honen arabera: HPSren esku dagoen informazioa izendegi zerbitzuaren bidez, edo aukera hori ez dagoen bitartean, datu-basean sarbide zuzena izanda, erakundeen esku jarriko da, eta bakoitzak interesatzen zaiona hartu ahal izango du; bestalde, erakundeek jasotako informazioan detektatzen dituzten akatsak zuzentzeko, edota datuetan falta den bestelako informazio baliagarria HPSri jakinaraziko diote.

Data: Etengabe

Egileak: HPS, Euskaltzaindia, Lurralde Antolamendua, aldundiak, EUDEL, udalak, IGN

Balantzea: 2016an Eusko Legebiltzarrak onartutako 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa kontuan izanda, udalerrien lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea udalerriei dagokienez, hauekin elkarlan estua egiten du HPSk Euskaltzaindiarekin batera. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak udalerrietako mapak egiteko urtero ematen dituen diru laguntzen deialdiaz baliatuz, Eusko Jaurlaritzako HPSk eta Euskaltzaindiak parte hartzen dute mapetarako leku-izenen azterketan eta aholkua eskaintzen diete udalei toponimoak arautzeko irizpideei dagokienean. Mapetarako leku-izenak erabaki ondoren, HPSk bere datu-basean eguneratzen ditu izenok.



EAEko toponimiako datu-basea erakundeetatik jasotzen den informazioarekin zuzendu eta eguneratzea

EAEko toponimiako datu-basea erakundeetatik jasotzen den informazioarekin zuzendu eta eguneratzea

Helburua: Lankidetzaren ondorioz erakundeetatik jasotzen den informazioa baliatuz, EAEko toponimiako datu-basea eguneratzea eta zuzentzea.

Deskribapena: HPSra etengabe heltzen dira datu-baseko toponimoak jasotzeko eskaerak. Azken urteotan, HPStik eskatu zaie bidalitako informazioan akatsik aurkituz gero edota euren lanean toponimo berririk txertatuz gero, horren berri HPSri ematea, gure datutegia zuzentzeko eta eguneratzeko. Horren ondorioz, baditugu hainbat lan jasota (udaletakoak, batez ere), baina orain arte ezin izan da gure datu-basean inongo aldaketarik egin, kontu teknikoak direla eta. Hala ere, dauzkagun datuak ezin dira dauden-daudenean sartu, lehenago kontrastatu eta osatu egin beharko dira. Horrek lan berezia eskatzen du, eta mantentze-aplikazioa amaitu bezain laster horretan hasiko dira HPSko teknikariak.

Proposamena: HPSn erakundeetatik jasotzen ditugun datuak (toponimo berriak eta zuzenketak) aztertzea, osatzea eta datu-basean sartzea. Lan honetarako ezinbestekoa izango da Euskaltzaindiarekiko koordinazioa.

Data: Etengabe, mantentze-aplikazioa dagoenetik hasita .

Egileak: HPS

Balantzea: ikus aurreko fitxan esandakoa.



Toponimoak finkatzeko irizpideak lantzea

Toponimoak finkatzeko irizpideak landu, Toponimia Batzordeak onar ditzan

Helburua: Toponimia Batzordearen baitan lan-taldeak sortzea, zenbait toponimok sortzen dituen arazoak eztabaidatzeko eta irizpideak finkatzeko.

Deskribapena: Toponimo mota batzuk bereziki konplexuak dira euskaraz emateko unean. Horien artean Hagionimoak ditugu. Izan ere, santuen izenak nola eman badakigun arren, santu horien izenean eraikitako elizak nola izendatu behar diren ez da hain argi ikusten. Hori dela eta, izendapen-sistema desberdinak aurkitzen ditugu halako kasuetan. Irizpideak finkatzeko dokumentua landuko da eta Toponimia Batzordearen aurrean aurkeztuko, onespena jaso dezan.

Proposamena: Toponimia Batzordearen baitan Hagionimiaren erabilerarako irizpideak finkatzeko lan-taldea sortzea.

Data: 2013ko abendua.

Egileak: Toponimia Batzordeko kideak

Balantzea: ez da burutu



Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien sail ezberdinetan toponimia eta kartografia nortzuk erabiltzen duten aztertu

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien sail ezberdinetan toponimia eta kartografia nortzuk erabiltzen duten aztertu

Helburua: Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien barruan toponimia erabiltzen duten sail guztietan HPSren datu-basean jasota dagoena erabiltzea.

Deskribapena: Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan sail eta proiektu desberdinetan erabiltzen dute toponimia: udalmap, udalplan, segurtasun saileko larrialdiak, turismoa, nekazaritza, katastroa, kartografia zerbitzuak... Baina batzuetan ez dute toponimia eguneratua erabiltzen. Kontuan izanda erakunde horietako informazioak zabalkunde handia duela, oso garrantzitsua da forma lehenetsiak erabiltzea. Uste dugu askotan erakunde barruan ere ez dutela iturri bakarra, eta forma desberdinak erabiltzen dituzte proiektu desberdinetan. Ziur aski erabiltzaile askok ez dute HPSren lanaren berri. HPSn arazoa detektatuta dugun arren, sarritan ez dakigu norengana jo behar dugun zuzenketak proposatzeko edo eguneratzeak bidaltzeko.

Proposamena: Eusko Jaurlaritzaren sail guztiekin harremanetan jartzea, toponimia erabiltzen duten proiektuen arduradunak identifikatzeko eta horiekin lankidetzak bideak irekitzeko..

Data: 2014ko abendua.

Egileak: HPS eta aldundiak

Balantzea: ez da burutu hori beste era batera egitea pentsatu delako: EAEko Izendegi Geografikoa kontsultagai jarri eta, ondoren, gainerako sail guztiei horren berri ematea. 2017an HPSn aukera izan da Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuko Lurralde Informazio Atalaren buruarekin harremanetan jartzeko.



Toponimia gaietan lankidetzan aritzeko eta datu-basea eguneratzeko protokoloa sinatu Euskaltzaindiarekin

Toponimia gaietan lankidetzan aritzeko eta datu-basea eguneratzeko protokoloa sinatu Euskaltzaindiarekin

Helburua: HPSren datu-baseko toponimoetan eta Euskaltzaindiaren ECO n egiten diren aldaketak, zuzenketak eta gainerako moldaketak elkarri jakinarazteko bidea finkatzea.

Deskribapena: HPSren datu-basean etengabe ari gara datuak zuzentzen edo osatzen. Mantentze-aplikazioa daukagun momentutik, toponimo berriak ere txertatzen joango gara. Euskaltzaindiaren Euskararen Corpus Onomastikoan ere gauza bera gertatzen da. Bi erakundeen corpusak garrantzitsuak izanik, ezinbestekoa da bietan jasotzen den informazioa ahalik eta parekoena izatea, beti ere bakoitzaren berezitasunak errespetatuz. Horregatik bi datu-baseek jasotzen duten informazioa era koordinatu batean mantendu behar da.

Proposamena: Euskaltzaindiarekin toponimia lanetan lankidetzan aritzeko protokoloa sinatzea. Protokoloan, batez ere, informazioa trukatzeko bideak ezarriko dira, erakunde bien datu baseetako edozeinetan ematen diren aldaketa guztiak besteari jakinarazteko modu erraz, azkar eta eraginkorrean.

Data: 2014ko abendua.

Egileak: HPS eta Euskaltzaindia

Balantzea: gai hau ez da landu HPSren aplikazio informatikoarekin izandako arazoak tartean.